

Amorraziozko sutan

Gure egoera kulturalari goitik beharago ebaki bat egiten bazaio, barrua ikertzeko, guraso eta umeen hazaldien arteko diferentzia erabatekoa nabaitzen da. Gure egoeraren gorputz sozialak bi izaki ezberdinena dirudi, kentauro edo sirena baten antzera. Agian hobeto, gure egoerak Jano-buru doblea duela, esan beharko litzake: bata beste-ari kokotetik erantsitako bi buru, alde banatara begira.

Ta bi alderdiok haserre bizian direla, esaten nuen.

AMORRAZIOA ETA ALTER-NATIBISMOA

Amorrazioak gure arteko gora behera asko esplikatzen du: tradizio kritikalako radikalismoa, itsukeria eta hesukeria anitz, humore txarra eta beste. Alferrikako eta batera beharrik gabeko istilu asko. Benetako elkarriketa, dialogo, falta.

Amorrazioak esatera gogortzen digu: doi-doi egingo da beste inon, Euskal Herrian baino kritika gogorragorik.

Amorrazioak askotan perspektiba gal arazten digu: amorrazioaren sutan aisa/ahazten digu hamar urte honetan zenbait lortu den. Zenbait entzunez, sekula baino atzerago gaudela pentsatuko litzake.

Amorrazioak, batez ere, bidegabezko jeneralizazioak eta sinplifikazioak egin arazten ditu. Izan ere, amorrazioak —bakteria espezifiko batetan giltzaperatzen bait du amorratutakoa— irrazionalkeriara eragiten du, hain zuzen bide irrazionalen (edo norberak halakotek edukitako) gauzez eta ahalazte sentimenduaren leherpena da-ta. Beraz, amorrazioaren sutan polarizazioa sortzen da.

Amorrazioak GOIZ ARGIRI edo AGUR-i baxter guztetan Euskal Herriaren etsaikiak ikusarazten dizkie, Euskal Herriaren beren buru-ta dutelako noski: gaste engaituak, interes zikinalak, azpilana, endredoa, demagoegoak. Euskaltzaindia "h" eta beste edozer gauza ere, taldekerien tresna baizik ez dira, eta nolabait ere, aldiakari sinestekotan, berak ez beste denok ("h" onartu dugunok behintzat) etsai edo etsaiaren lagun eta laguntzaile ginake. Beraz, gu alde batean eta beste denak bestean.

ANAITASUNAK askotan eman izan du inpresio horixe bera, nahiz eta aldiakari honen historia urdurian txik-txak edo zehar-mehar asko nabari: gu eta gutarrak alde batean, eta beste denak beste aldean. Gu ezkerriak eta beste denak eskuindar, ententituz, agian.

E. Osak ere noizpait gure arteko diferentzien haizua honen garbi ikusten badu, alternatibismoa horixe besterik ez da: "Eta orduan ikusten dugun, euskaldun batzuek zantpatuz jokatzen dutela, eta beste batzuek askatzu".

ZERUKO ARGIA bera ere, Urtikan eskuindarrak editorialarekin, alternatibismoa hortantxe erortzen zela iruditzen zitzaion Gaztania-gari: gu ta zuek-etan banatzen zela mundua. Ez du merzei adibideen gehiago lutzzerik. Piska bat behintzat, eta burrukan ari garenaz gero, alternatibismoa ezinbestezkoa dirudi.

Alternatibismoa funtsean mani-keismo teorikoa da. Ta ez dago pentsatzerik, inor, hotzean, bene-tan hain manikeo dugunik. Alter-

natibismoa batez ere postura polemikoa da. Zenbait pentsamolderen arrisku tendentziala ere bada, batez ere ezkerrena egunotan (eskuinak ez bezala, teoria propio bat sortzen lan egiten bait du). Eta goiko adibideekin adierazi nahi du-dana, haxe besterik ez da: eus-kal giro guziz polemikoan, oso erraza dela, alde ala moldeaz alternatibismoan erortzea. Ez dut uste, gaitz hori batzuen ala beste-na bakarrik denik: guzian gaitza dugu hori aspaldian. Gure egoeraren ezagutza bat da. Eta aktibismoak oso erraz dakarrena, gainera, ekitza konkretuak maiz alternatibien aurrean erabakitzen bait da. Orduan, aisa pasatzen da bat, alternatiba praktikoko prin-tzipiozko alternatiba moduan ikus-tera.

PROBOKAZIOAK

Normalizat har daiteke, euskal-dunoi gure egoeran istiluak usu sortzea. Ahalgintza eginda ere, ez gurek lortuko, iskanbila eta istu-lurik gabe aurrera irtezea.

Hain minbera eta sentikor bihur-ta gauda, gainera, ze bestelako erizitak eta beste erizitakoen la-nak gure inguruan, oso erraz, pro-bokazio moduan hartzen bait ditu-gu. Arrazoiak asko eta diferentek dira. Baina arrazoiak gora behera, azken finean horixe da, gertatzen ari dena. Nik apenas pentsa ne-zake, adibidez, Aita Villasanta eus-kaltzainburuaren agiriak inor pro-bokatu nahi zuenik. Baina ez da jendea probokatu gabe pasatu. Ga-ral batetan, "h" zela eta ez zela, Mitxelena erizitak oso erraz bi-hurtzen ziren probokazio, eta doi-doi zabal zezakeen ahorik "h" ai-patzeko, norbait sumindu edo nor-bait bere alde aprobeztatu nahi izan gabe. Neuri ere gertatu izan zait, gutiena uste nituen proboka-zioak egitea, eta uste dut, horre-lako historiak denok ezagutzen di-tugula, eta gehienok jasan ere.

Batzutan ezinbestezkoa da, esa-tera batzuk probokatioak gerta-tzea: gure tradizioetan sustrairik gabeko pentsa eta mintzamoldeak sartzen direnean, esate baterako. Ez dago, lehen-lehenengotik zuzen alertuko direla, itzaroterik. Adibi-dez. Bonhoefferen erara. E. Osak erlijioari baxteru beharrezko ba-derizkio, baina fedari ez, oso ne-kezer uste daiteke hori, sola gratia eta sola fides aksioma luterano-ekin ohituta egon gabe. Tamalez, Osak ez ditu sustrai horiek aski esplikatuta. Eta hartu ere, batzuek oso gaizki hartu diote (ententzen asko nekatu gabe).

Baina probokazioa propio bilatu ere, egiten da: salakuntza mo-duan, gehienetan. Nik behintzat hala ententzu nuen, adibidez, LUR-ek beste argitaldaria baten kontra zabandu zuen agiria, editorial hau —ETOR— klerikal eta jesuitatzat emanaz. Berdin E. Osaren beraren

zenbait judizio orokor eta horobil: Vatikanoko 2-gna teologo neokapi-talisten kontzilioa izan dela, su-jritzen badigu, esaterako. Edo-ta beste hau esaten badigu: "Beraz, gehiagi ez ginake harritu behar jende erlijiozalea, beti eskuindarra izan dela eta eskutikoa alderdiari eutsi izan diola ikustez. Hori nor-mala da. Erlijioak beragan sortzen den sikologi estruktura osoak ho-rretara darabna, zuzen-zuzenean" (PeG, 68/67). Bapo gelditzen dira Konfuzio, Buda, Amos eta Isaia profetak, Jesus Nazaretarra, egu-notan Albert Schweizer edo Cami-lo Torres bera! Egia da, gu ez ga-rela horien mailara alegatzen. Ha-lare, Osak ez gaitu oso leku onean uzten, gure buruak oraindik erli-jiozaleztat daduzkagun hilkor egu-norokuk... Baina erlijiozalea ez-ezik, literatur-zalea ere majo txoka-tzen du Osak: "Burgesiak bere Ra-cine, bere Mallarmé, bere Homero, Kikero, Cervantes eta abar be-har ditu, beheko mailaketa jende-etatik berezi ahal izateko. Autore klasikoek bidez, esateko ere izku-tatik eta misterioz, alegorik, hikietaren elegantiak ikasten da. Eta hori beharrezkoa da, ezer guti dakiena hitz jarioaren saretan erraz bildu ahal izateko". (Ibid. 86). Arrazoi hori baldin bada, be-netan, burgesiak behar dituenen eta daduzkan Autoreen lista, asko luza liteke: Marxek hainbeste es-timaten zituen Goethe, Shakespe-are eta Balzac, teatro grekoaz apa-te. Baina zergatik ez K. Marx be-ra, Th. eta H. Mann, Pushkin, Gorki, Maiakowski eta beste mila? Tira, erlijiozalea eta literaturzalea, matematikaren konpainiaren ki-n aurkitzen dira berehalaxe, eta la-sai daitezke: "Gaurko matemati-kak ere sistema baten produktioak dira, ez hainbait duen zerbait" (Ib. 84). Sobietarrei eta txinoi horixe lehenbailehen abixatu behar diegu, hahafede...

Pedagogia eta Gizarte, E. Osa-ren liburu benetan interesgarri eta aprobeztagarria, ez da merzei zuen haina aprobeztatzerik egon. Ager-tu, amorraziozko giro alternatibis-tan agertu zen. Baina eragin ere —eta be har ba da horrexegatik, apropos— liburuaren tankera jene-rak giro alternatibista harixe na-barmenegi eragiten zion. Bildur naiz, hori, bai liburuaren, bai egi-learen, eta bai euskaldunen kaitte-tarako izan dela. Noizpait benetan serioetan hartu beharra edukiko du-gun makina bat gauza, ez da ba-tere haintzat hartu. Liburuak pro-bokatio gertatu zen, eta oker ez banago, esaten diren gauzengatik baino gehiago, guziz esateko mo-duagatik.

Ez da beti erraza, asmatzea, eus-kal plaza honetara nola jaigi. Ha-serreke, normalez gainera, beha-rrezkoak ere izan ditzakegu agian. Nolanahi ere, burruka behar-beha-rrezko dugu. Hala dio Haranburu-Altunak, hala dio E. Osak, eta edozeinek esango luke horixe: agian

hau da, denok ados gauden puntu bakarra. Bakotzak bere erra-ententzu, jakina. Arenazat Josu ta Beistegi'tar Jon ere burrukari ageri dira, amenazo beltzak botaz batzutan. Adibidez, Mr. H. miste-riotsu bati leihotik behera botatze-ko-edo mehatxua egiteraino aile-gatuz. Ta ziur egongo dira, hala-zek jokatzea komeni dela gaur, ez dagoela beste erremediirik: "gure aurretikoenganako lotosek eta mai-tasunak eragina baino ez ba'da-be". Arrano bihurtu den usari —GOIZ ARGIKOren batek horre-laxe ikusten bait du— hau da, "besteek kulpaz" burrukan hasi de-nari, eta denak halaxe hasi zaiz-ki-gula ematen du, ezin burruka-rako arrazoirik falta dakioko. Ta esau ere, zeinek esan, arrazoirik ez duenik?

Orain, nik ez dakit, dena burru-kanen perspektiban ikusi behar ez gennukeen, probokazio sistematiko-ari ekin dioten batzuek, itxuraz, usteko dutenez. Nik neuk arazo as-koetan, batez ere zientziarekin eta azterketarekin lotuta gabiltzanean, neutraltasun gehixeago posible ba-dela eta komeni litzazukeela, pen-tsatzen dut. Baina, esaterako E. Osak, ikus daitekeenez, ez ditu neu-tral-tasunok gehiagi estimatzen. Ha-ranburu-Altunak ere ez. Mitxelena-ri erantzunez adierazi digun beza-la. Eta printzipialki behintzat, neu-ri ere ez zait gaizki iruditzen. Gi-zarte normal batetan denetik egon behar du: "anormalidade" batzuk ere bai...

Dena den, badirudi, Autoreek neutraltasun gehiagi aurkitzen du-tela. Arenaza eta lagunek, berri-z, gutiagi aurkitzen dute: ez Euskal-tzaindiak eta ez beste inork diru-di, hauen begitan, neutral aski.

Baina segi ditzagun hariari.

Azken aldian, sarritan batik bat, formaren radikalismoa ia mami-arenak baino inportantzia handia-goa jokatzen du. Gauza benetan radikalak esan arren, forma esplo-siborik gabe esanez gero, kasi ohar-kabea pasatzen dira. Eta aldre-bes: aspaldiko mila topiko zahar eta zimelek, forma esplosiboan

esanda, oraindik izugarriko tarra-pata sortzen dute.

Gizon bat kalean normal jantzi-ta pasatzen bada, ez dio inori aten-tziorik ematen. Hori bera kaltzon-tzilo hutsetan pasatzen bada, aten-tzio ematen du: alegia, atentzio gizonak ematen du, lehengo berak, ez (marka oso espezialen bat ez badarama behintzat) kaltzontzi-loek. Baina gizona lehengo berbe-ra da. Bestela "normala" zen gi-zona.


Zenbait esateraren arrazoiak eta arrakasta ez dago honekin zeriku-sirik gabe. Gau, inor izateko, "po-troak" eduki behar dira (eta ez daduzkanak artifizialak erosten di-tu); beste horiek "puta-seme" ta "lau" batzuk dituzte; hurrengoak "kabrei" galantak, etab. etab. Bes-tekek beste, elementu probokatorik ez da hizkuntza hortan falta. So-bra ez den elegantzia aparta, noski.

Halare, probokazioak berritzenak Haranburu-Altunak bota ditu, ez-pairik gabe. Ez dakit horixe bila-tzen ote zuen, baina hori gertatu da. Izan ere, ez da makala muti-ko haxe, esaten hasita. Istiluak berehalaxe sortu dira, eta ez no-lanahikoak. Gure kultura pobrea da, ez dago dudarik: ez zitekeen hobeto demostratu.

Dena den, gure egoerako barruti interesgarrienakoa da proboka-zioen hau, baina hemen ere ez naiz epaitzera sartuko. Probokazioak ba-tzutan komenigarriak izaten omen dira, eta beste askotan ez. Asko-tan indarrak erretzeko bakarrik dira. Eta haserre sortzeko, lehen-diki guti bagoz bezala. Guri ko-meni ote zaizkigun ala ez, nola-koak eta zein neurritan eta zein unetan, argitzea, faktore ezber-din askori begiratu beharko li-tzazko. Batez ere, egoera osoa juz-gatzu hasi behar litzake. Eta he-men ez dago hortan abiatzerik.


Baina uste dut, guk gehienetan senari, instintoari obeditzen digu-la, holakoak egiterakoan. Eta ez arrazoimen kritikoa.

Joxe Azurmendi



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrerakia Kutxa

EUSKAL IRRATI
SAIOAK



Banen baneko azikal
Ongari ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Tortaleaga'ko Petira joan
eterriak

Baserriaren alde



aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR,
GARBITOKI ETA TURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:
PUENTERRABIA, 19 - URRUT, 11459
DONOSTIA

GRAMAN - EKARRI'ako
AGENCIA

Transportes A L E

EUSKAL IRRATSAIOAK
ENRI GUZTIRAKO

Urrutirik: 421369 - 427726
Iparragirre, 8 - DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopeitia

Getaria 10-Urrut 417751-Etxekoa 422700 - DONOSTIA